

Hitzarmena, kooperatibismoa sustatzeko hezkuntzan eta politika publikoetan

2008/12/30

Mondragon Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetzaz **hitzarmena** sinatu zuten abenduaren 29an Arrasaten. Horren bidez, unibertsitateak plan bat landuko du, Lanki ikertegiak kooperatibismoaren inguruan egindako hausnarketa estrategikoan oinarrituta, **kooperatibismoaren balioak zabaltzeko** berrikuntza sozial, hezkuntza eta politika publikoetan.

Egitasmoaren aurrekontua 2008-2009 aldirako izango da 210.000 eurokoa. 2008ko ekitaldian Gipuzkoako Foru Aldundiak jarriko ditu 50.000 euro. Hitzarmenaren jatorria

Hitzarmena abenduaren 29an sinatu zen Arrasaten, Mondragon Unibertsitatean bertan, eta sinatzaileak izan ziren: **Markel Olano** Gipuzkoako Foru Aldundiko ahalzun nagusia, **Iosu Zabala** Mondragon Unibertsitateko errektorea, **Nekane Arratibel** Huhezi Fakultateko dekanoa eta **Jon Sarasua** Lanki ikertegiko zuzendaria.

Helburua

Ikerketa egitasmoaren helburua da Debagoiena ibarrari eskaintzea "kooperatibismoaren ikuspegi integrala, gaur egun ez baitu horrelakorik", aurrerantzean "mugimendu horren gaitasun eraldatzailea ahalik eta gehien indartzeko, enpresaren esparrutik harago". Horretarako, lan bateratua bultzatuko du kooperatiba, hezkuntza, unibertsitate eta gizarte alorretako eragileen artean.

Lau esparru

Lau esparru landuko dira proiektua garatzeko: kooperatibak gizarte alorrean, berrikuntza sozialeko proiektuak, balio komunitarioetan oinarritutako hezkuntza proiektua, eta politika publikoetara bideratutako lankidetzaz.



(Argazkia: Goiena.net)